


SATRUSTEGI DORREA
A MAILA**MARBIL BIDEA 6**

Egile ezezaguna, 1883

Deskribapena

Badiari begira dauden eraikin nabarienetakoa da. Miramar jauregiarekin batera, XVII. mendeko Errenazimendu ingelesean zuzenean inspiratutako obra da, nahiz eta biak bi mende geroago eraiki zituzten. Satrustegi dorrea 1883an amaitu zuten, Miramar jauregia bukatu baino hamar urte lehenago. Beraz, Maria Kristina erregeordearen udako lehen egoitza izan zen, jauregiaren fundatzaile Joaquín Satrustegui hura eskaini ondoren. Ziurrenik, eraikin honen ezaugarri garrantzitsuena Igeldo mendiaren magalean duen aparteko kokapena da. Ekialdera begira eta haizeetatik babestuta dago. Muino nabarmenenaren gainean dagoenez, jauregia oinarri lau batean ezarrita dago. Ezaugarri bereizgarrienak bi dorre oktagonak eta erremate almenaduna dira, hori guztia hareazko harlanduz egina, estilo neorrenazentistarekin lotutako zeinutzat. Dorreen artean kokatutako gai zentrala honako hauek osatzen dute: sarrerako harmailadiak, galeriak, goiko terrazak eta hiru altueren erremateak (leinuaren armak biltzen dituen erdiko ezkutuz). 1920an, Francisco Urcola arkitektoak finkaren sarrera zabaltzeko obrak egin zituen, jauregiaren estiloari eta formei jarraituz. Era berean, iparraldeko fatxadako begiratoki irtena eraikina egin ondorengoa da.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Monumentu kategoriaz, kultura ondareztat kalifikatu izanaren ondoriozkoa –ekainaren 12ko 312/1995 Dekretuaren bidez (127. EHAA, 1995-7-5ekoa)– eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- * Eraginpeko ingurunea: adierazitako dekretuaren II. eranskinean mugatutakoa (erantsitako grafikoan jasotzen da).